




II Urtea

1920'ko IIbeltza

XIII Zenbakia

ZERUKO ARGIA
1920-1921
SAN SEBASTIAN

1920 URTEA TA ZERUKO ARGIA

URTE pozkarritik ateratzen da Zeruko Argia, urte pozkarrigoan sartzeko, itxuraz. Neurritik gabe geitzen ari zaizkigu artzaleak eta zarrak berritzen sallekak.

Azi onak lur onagoa arkitu du Euskalerrri maite ontan. Eta alegia landare berriak zañak ondo artu lurrean eta pixkat gogortzen danean bizitza ugariago izaten du ta zitu edo frutu geiago ematen ere bai. Ala zai degu 1920'ko urterako "Zeruko Argia" gandik.

Gure lantegia ugaria da, langilleak eztaude lo, naiko gaia ba-dator; ernatzeko lekua eta beta bear. Bearrenezkoak iñoiz utzi gabe, bestea; pixkaka tokia egiñez, alaxe goaz Zeruko Argia 'ren lenengo asmoa zabalduz eta itzemana betez.

Lenengo urte ortan asiera eman besterik ez-tegu egin. Nai genduke ba pozik ba-zaudete len-go urtekoaz, pozikago utzi arpidedun guztiok urte ontan. Ortarako uste degu len-lena goitiko argia ta urrena zuen laguntza. ¡Urte berri on!



ERREGE EGUNA



ONA aur kristauak geiago maite duten jaia: onetxek pozez bete bear lituzke lenago siñismenik gabekoak ziran errietako kristauak, egun ontan gogora ekartzen baita Jaungoikoak siñismenera (federa) ots egitean egin zigun mesedea.

Zer jai egiten du egun ontan Eliza gure Ama deun edo santuak?

Irakuskundia edo Epifania; itz onek esan nai du agertzea edo azaltzea; Jesukristo lurrekoai Jainkoa bezela agertzea gaur gogoratzen baita.

Erriak geiago ezagutzen du Errege-egunaren izenaz. Oso antziñekoa da; Elizen batzutan bigarren eunki edo sigloan egiten zan; jaien batzutan jolastoki borobill edo zirkoetak^o jostaketak debekaturik zeuden: laugarrenean, egun ontan debekaturik zeuden.

Zertarako jarri du Elizak Irakuskundiaren jaia?

Jesukristo'ren jaungoikotasuna gizonari agertzeko ta erakusteko gertatua ta Ebanjelioak aitatzen dizkiguten iru gertaerak gogora ekartzeko ta oien jaia egiteko. Gaurko egunean Elizak bere eliz-gizonen bidez abesten kantatzen duen bezela, iru mirariz apaindua dago; gaur, mirariz, izarrak magoak, jakintsuak ereman zituan **Askara**; Galilea'ko Kana'ko eztaietan ura ardo biurtua izan zan, ta gu gaizkatzeko, (salbatzeko) Jesukristok nai izan zuan bera Juan'ek Jordan'en bataiatzea. Aleluya.

Lenengoaren bitartez Sortalde'ko magoai, jakintsuai ta erriai bere jainkotasuna Jesukristok erakutsi zien; oiek, izar miraritsu batek bidea erakutsirik, Jesukristo'ri agur egitera datoz; ezkeintzen dizkioten gauzen bidez Jesus ezagutzen dute erri guzien Jainkotzat, gauz guzien erregetzat ta gizon guzien Erosle (Erredentore) Gizontzat. Kanako eztaietan ura ardo biurtuaz bere Jaungoiko-indarra ta alizatea agertu zigun; irugarren mirariaz Aita Jaungoikoak Jesus Jainkoa dala ezagutzera ematen du. Goitikako abots edo boz me bat entzun zan: Nere poza Seme batengan bai-det, auxe bera da; bi-fartean zeruak urraturik uso argitsu baten antzean Jesus'en gañera jetxi zan Espiritu Santua.

Naikoa, aski litzeke gertaera oietako edozein Jesus'en jainkotasuna eza-

guerazteko. Aintziñan Jesus'en jainkozko alizatea erakusten zuten beste | ger-
taerak zirala-ta jai egiten zan; oietakoa zan Jairo'ren alabaren piztea.

Iru mirariak Elizak gaur gure gogora ekarri arren gaurko eguna batez
ere Iru erregeak Jesus'i egin zioten agur edo adorazioaren jaia da. Errege



(*Madrid'ko J. Roig'en argirudia*) (Murillo'ren irudia)

JESUS, MARIA TA JOSE

egunaren ondoko zortzigarren egunean batez ere aitatzen da Jordan'go Je-
sus'en Bataioa: ta Errege-ondoko bigarren igande an ospatu edo zelebratzen
da Kana'ko eztaietan egindako miraria.

Nor ziran Jesus Aurrari Belen'en agur egin zioten mago edo jakintsuak.

Aur Jainkoari agur egitera Belen'era jua ziranak magoak au da jakintsuak ziran, batez ere izar gauzetan.

Sorkaldetik, au da Persia edo Babilonia'tik, jakintsu ugari ziran erri ontatik, jua ziran. Beren biderakusle izan zuten izar miragarri bat. Sorkaldean agertu ta gero Jerusalemik Belen'eraño bidea erakutsi zien Jesus Aurrari zegoen estalpe-gañean geldituaz. Ontaz gañera Ebanjelioak ez digute oien beste herririk ematen; oien berri geiago iritxi etzaigu; geinak uste dute jakintsu oiek errege ziralaz; baño batzuk egi-antzik eztute, eta ala diralako ezagungarririk ez ebanjelioetan, ezta ere elizaren otoitz-liburuetan ez da arkitzen. Baño ezin ukatu diteke jaun oso aberats ta aundizkiak ziranik; au adierazten digute bai errialde aietan zioten begiramen ta itzal aundiak, baita Jesus aurrari egin zizkioten eskeintzak, au da kedats edo inzensus, urte ta mirrak.

Zenbat izan al dira? Sarkaldetik Jesus Aurrari agur egitera jua ziranak iru ziralaz Eliza ta geienen ustea da, eskeñi zituzten iru gauzak ustez au adierazten dute.

Zein dira gure Ama Elizaren biotz-mugirak?

Bere mugirak dira: Irakuskundia edo Epifanian jaio bai-zan Eliza katolikoa Jesus'en Jordango Bataioaren bidez; orren urte betetzea dalako poz aundia dauka; ta esker onez betea dago Jainkoak siñismen edo fede gabekoa; katolikoak, kristauak izateko egin zigun deia gaur ospatu edo zelebratzen dalako.

Guk ere poz eta eskerron aundi ori egun ontan izan bear degu?

Bai; bada izarrak erakutsi ta errege jakintsuak Jesus Aurrari agur egitera jua ziran bezela, gu ere Siñismenak (Fedek) erakutsi ta Jesus aurrari egiazki agur egiten zaion erlijio katolikora etorri gera.

Beraz ba egiazko pozak gure biotzari gañez eragin bear dio ta Siñismenera (Federa) egin digun deiagatik Jaungoikoari esker izan bear diogu; orregatik egun ontan berriro bear ditugu Bataioan Jaungoikoari egindako agintzak.

Ta bere biotza betetzen dion poza nola erakusten du Elizak?

Ezkillen (kanpaien) jotze ta soñu alaiatz, eleiz-gizonak eleizan ibiltzen dituzten soñeko ederrez ta eliz-jantzien margo edo koloreaz, txuria poza ta alaitasunaren irudia bai-ta.

Ta kristauen etxetan jai au nola egiten al da?

Siñismen biziko denboretan zenbait jai egiten ziran, danak kristautasun-usaiekoak ta batek bakarrik oraindaño iraun du: au da Erregeen emaitz edo erregaloa, emaitz edo erregalo auek Erregeak ekarriak izaten dira gaiztakeri gabeko aurren ustez. Oitura an etxe kristau guzietan gorde bearrezkoa da; emaitz oiek Jesus Aurrari Mago edo Jakintsuak egin zizkiotenen irudia dira, ta aurren bitartez Jesus Aurrari eskeintzen dizkiogu.

Eliza deun gure Amak ere emaitz edo regalotxo bat Belengo Aurrarentzat eskatzen digu: au da siñismen edo fede gabekoen arteko Misioetarako zerbaite ematea: ontarako diru-eskea egiten da gaurko egunean elizetan:

siñismena jende aien artean zabaltzeko dirua bear da; orretarakoxe da egun ontan biltzen dan diru au.

Egun ontan siñismenera (federa) Jainkoak egin digun deiaren jaia dan ezkerro ezin egokiagoa da gure grñai egun oietan atsegiñen bat ukatzea, esate baterako, jostaketaren bat; ta ola aurreratzen degun pixka ori siñismena (fedea) zabaltzeko eman dezagun, siñismenik ez dutenak Eliza Katolikokoan sartzeko zoriona izan dezaten.

TUDELA'TAR K. A. O. M. CAP.

(ATXURI'K ITZULIA.)

JAUNGOIKOAREN ARKUMEARI

Jauzkatu zuan (1) Maitaleak;

¡Zeñ polliki

Zerutik bera jauzi (2) zuan;

¡Ura zan bai!

Judako zelai izkutatuan

Erori zan:

Arkumetxoaren artilla

Bai zeraman.

Bere masalle gorrietan

Arros-pillak;

Bere begietan jainkozko

Itxas bana;

Bere ezpañetan bizitzako

Iturria;

Bere biotzan zegon gargar

Maitasuna.

Ori da goiko Arkumea,

Bai ori da;

Bere izakeran darama

Goiko antza.

¿Zergatik, nere Arkumea,

Zaude geldi?

Etzatozkit? biotzera

Oe guri-guria antxen det

Zuretzat, bai;

Iñor ezta oraindik etzan

Atoz, zabiltz.

Jauzkatu laxterren-laxterrenik

Niregana;

Zuri itxo-egiten nago

Erdi illa.

Lasto pilla gañean datza

Ganbelean;

Minberatu baida zerutik

Erortzean.

Seme-Amari dagozkie

Zintzilikan

Negar-malko kupigarriak

Betilletan;

Biotz-eske zetorrelata

Arkumea,

Gizonak utzi bai izan zuten

Lasto latzan.

Arkumea ez baizik artzai ere

Bera bai-da,

Indar artuta jauziko du

Zuraitz gora.

Andik arrapatuko ditu

Gizon txarrak


Bere esku-on zaurien

Abailan.

Altzo-azpi'tar Did. A. O. M. Cap.



KATALIÑ DOATSUA, GARBIA TA LEKUKOA



ATALIÑ Doatsuak iztun-ederreko itzaldi batekin erantzun zien berrogeita amar jakintzarien Nagusiari, guziak arriturrik arkitzen ziran bitartean.

Igarle Doatsuen eta lenagoko jakintsu askoren itzakin, eta era askotako argibide egokiakin, oso argiro azaldu zuan Jaungoiko egiazko bat baño geiago etzegoala ta ezin litekeala egon ere, eta Jaungoiko egiazko au zala Jesukristo gure Jauna, guzoi betiko bizitza ta zorientasuna ematearren Gizon egin zana ta gurutze batean il zana, eta gero illen artetik piztu ta Zerura igo zana.

Igarle Doatsuak alde aurrez eta oso argiro iragarri zituztela Jesukristo gure Jaunaren Gizon egitea, Jaiotza, Bizitza, Nekaldia, Eriotza, Piztuera ta abar, gertatu ziran bezala.

Eguzkiak, illargiak, izarrak eta izate guziak Jesukristo gure Jauna beren Jaungoikotzat ezagutzen eta gurtzen zutela.

Eguzkiak, gañera, Jesukristo gure Jauna gurutzean josi ta il zanean, bere argitasun guzia eskutatu zuala ta lur guzia illuntasun oso-osoan utzi zuala, bere atsekabetasun aundia agertzearren.

Eguzkiak, illargiak, izarrak eta izate guziak bezela, gizadi guziak ere, Jesukristo gure Jauna, Jaungoiko egiazkotzat ezagutzea ta agurtzea oso bi-dezkoa zala.

Agintepoko jainko guziak gezurrezkoak eta ezertarako etziranak zirala, eta eragabekeri aundia zala ezertarako etziran jainko gezurrezko aiei, Jaungoiko egiazkoari ta guzialtsuari bakarrik zegokion eskeintzak eta agintzak egitea.

Uzteko, ordea ezertarako etziran jainko gezurrezko aiek, eta ezagutzeko ta agurtzeko Jaungoiko egiazkotzaz eta guzialtsutzat, Jesukristo gure Jauna, Zeru ta lurren Egillea ta Zuzentzalea.

Kataliñ doatsuaren itzaldi arrigarritzkoa aditzean, berrogei ta amar jakintzariak Jesukristo'gan siñestu zuten eta kataliñ Doatsuaren abotik Zeruak itz egin zuala ta berak esan zuana egia zala aitortu zuten.

Masimino Agintariak, ustegabeko aitortze au aditzean, su ta gar egiñik jakintzari aiei berealaxe lepoak moztutzeko agindu zuan. Jakintzariak Kataliñ Doatsuaren aurrean auzpeztu ziran eta Doatsuari uste oso-osoarekin eskatu zioten, beren gaiztakeri guzien barkamena Jesukristo'gandik irixteko, Jesukristo'gatik beren odola ta bizia emateko gertu zeudelako. Kataliñ Doatsuak itz gozo-gozoakin poztu ta indartu zituan, Agintariaren agindua bete zan, eta berrogeita amar Jakintzariak beren odolaz eta biziak Jesukris-

米米米



米米米

toren *lekukotasuna* pozik eman zuten eta lurreko erbeste onetatik Zeruko betiko zoriontasunera joan ziran.

Masimino Agintariak, gero, alegiñ guziak egin zituan Kataliñ Doatsua jainko gezurrezkoak agurtzera beartzeko, lenengo onez onean, bere eskua ta nai zuan guzia eskeñiaz, eta gero txarrean, giltzapean sartuaz, gogor zigorradatuaz, eta era askotako eramankizun aundiak eraman eraziaz. Eta guzia alperrik zala etsi zuanean, su ta gar egiñik, txirrika zeritzaion miñ-emangai ikaragarrian jarri eragin zuan, antxe zatitu ta berealaxe ilko zalakoan. Baña miñ-emangai ikaragarri arek, arrigarrizko eran eta Kataliñ Doatsuari miñik egin gabe zart egin zuan, eta bere inguruko siñisgabeko asko jo ta il zituan.


Gertaera arrigarrizko au ikustean, Masimino Agintariaren emazteak, bere gudalari nagusi Porfirio'k eta beste berreun gudalarik Jesukristo'gan siñestu zuten, eta Agintariak orduan, oso su ta gar egiñik, berealaxe lepoak moztu eragin zizkien, eta guziak Jesukristo'gatik beren odola ta bizia eman zuten eta Zeruko betiko zoriontasunera joan ziran.

Masimino Agintariak gero Kataliñ Doatsuari berealaxe lepoa moztu eragin zion, luzeroago bizi ezkerro guziak Jesukristo'rentzako irabaziko ote zituan bildurrez, eta bere lepoko zauritik odola irten bearrean esnea irten zan. ¡Arrigarrizko gertaera onezaz adierazi nai izan zuan Jesukristo gure Jaunak bere emazte zintzo-zintzoaren garbitasuna!

Au gertatu zan Kataliñ Doatsuak emezortzi urte zituan garaian, eta Jesukristo jaio zanetik irureun eta zazpigarren urteko Azaroaren ogeita bostean. Eta Kataliñ Doatsuaren Gorputz-il Agurgarria, Zeruko Aingeruak berealaxe artu zuten eta soñu gozo-gozoak jotzen zituztela Sinai mendira eraman zuten eta antxe lurperatu zuten. Eta geroago, Kataliñ Doatsua lurperatua izan zan tokian bertan, bere izeneko Eliza bat egin zan eta antxe agurten da oraiñ ere jaieratasunik aundienaz.

Kataliñ Doatsua Elizako Doatsu garbi ta Lekuko argien artean argienetako bat da, eta jakintzarien Zaindari berezia.

Aita Eskoriatza. O. M. C.



Iru Erregerekin



(Bordes)

(Donosti'ar J. A. Ak. ereskidetua)

I - ru e - rre - ge - re - kin, mai te - ki go-

ra - tzen zai - tu - gu e - ta E - ro - de-

se - kin gu - da na - i - de - gu.



IRU ERREGEKIN

Izar bat zen argia
aundia
zerutik agertu
erregeak bertatik
berealabiatu.

Erodes'en irian
berian
auk zuten galdetu
ea ango errian
Jesus zenez sortu.

Erodes erregea
ber-bera
kezketan jarririk,
galdetu zun bazen-ez
beste erregerik.

Erodes'ek berala
Kortia
zuan billerazi,
jakin nai bai zuan
berria obeki.

Erodes'ek orduan
berean
erantzun zioten;
Kristo bearko zala
jaio izan Betlen'en

Erregek diotsate:
«zoazte,
ezta sortu emen;
ikusten badezute,
neri esan non den.»

Magok ala galanki
jarraiki,
zuten bide ura,
bai eta adoratu
gero Jesus aura.

Mirra zuten eskeindu,
inzensu
urre askoreki;
eta itzultzeko joan
beste bidez gaindi.

Jesus, ongi bazaizu,
iguzu
Errege aieki,
bai duzu al askia,
zorion azkarki.

O Birjiña garbia
Maria,
otoizten zaitugu
Jesusen eretzian
balia zatzaigu.

Jesus zeruetako
lurreko
Egintzalle Jauna,
arren eraman gu
Zeru goienera.



Irutasun edo Trinitate Santuaz

Hæc est fides catholica ut unum Deum in Trinitate et Trinitatem in unitate veneremur. Symb. Athan. Ihu da alde guzietako siñismena, Jaungoiko bat irutasunean eta irutasuna batasunean guk agur egitea.

GAUR itzezin bear dizut n. k., gure Erlijio deunako siñis-gairik aundienetako batez, Trinitate edo Irutasunaz. Jaungoiko bat bakarra dala siñisten degu ta bat baño geiago ezтитеzkela izan agirian dago; lengotan esan degun bezin aundia izan hear dualako Jaungoikoa ta alako bi edo geiago izatea eziñezko gauza dalako.

Baño ala ere Jaungoikoagan iru lagun dirala siñisten degu. *Zenbat lagun dira Jaungoikoagan?*, galdetzen du X-garren Pio'ren kristau ikastiak. Eta erantzuten du: *Iru lagun egiz banakoak dira Jaungoikoagan.*

G. Nola dute izena Jaungoiko iru lagun oiek? Jaungoiko iru lagun oiek, Aita, Semea ta Espiritu Santua (Goteuna) dute izena.

Guri erakustera zerutik jetxi zan Jaungoikoaren Semeak erakutsi zigan bestela iñork sumatu etzezaken egi aundi au. Ta egi au da gure siñisgai guzien buru ta lenengo. Nai ta naiez bear da egi au siñistu, Jaungoikoaren Semearen gizon egitea, Espiritu Santuaren etorrera eta gure beste siñisgai guzia siñistekotan. Egi ori da gure siñiste guziaren oñarria.

Siñisgai ori ain illuna egiten ba-zaigu ere nola den aditzeko, esan dezagun: nola nai ditut ezagutu Jaungoikoaren izkutukoak? Ala ere siñisten det eta agur egingo det Jesus berak erakutsia dalako. Berak esan zien Bialdu edo Apostoluei zoazte ta erakutsi erri guztiei, *bataiatu ditzazute Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.*

Itz auetan ezagun da iru lagun dirala; Aita Semea ta Espiritu Santua. Iruak Jaungoiko dirala argi dago, iruen izenean bataiatzen dalako. Eta iru la gun oiek Jaungoiko bat besterik ez tirala agiri da esaten dulako: *bataiatu Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean*; eta Jaungoiko bat baño geiago balira bearko zian esan Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren *izenetan* eta ez izenean.

Jesus'en bataioan gertatu zanaz ere agiri da iru lagun dirala. Jesus uretik atera zan bezala zeru-urdiña erdibitu zan eta agertu zan uso baten antzean Espiritua Santua ta jetxi zan Jesus'en buru gañera. Bitartean zeru goitikan entzun zan ots bat ziona: ori da nere seme maitea, neri atsegiñena zaitena. Ona emen ere iru Jaungoiko lagunak banaka; Aita goitik itz oiek esanez, Semea orduntxe uretik ateratzen eta Espiritu Santua uso irudian.

Ebanjelioko ta Bialdu edo Apostoluen eskutitz edo kartetako esan askoz egiztatu giñezake egi au bera, bañan asko da esana.

Kristau ikastiak galdetzen du:

Trinitate edo Irutasun guziz deuna nor da?—E. Irutasun guziz deuna da Jaungoiko bera Aita, Semea ta Espiritu Santua, iru lagun banakoak eta Jaungoiko bat bera. Iru lagun dira, baño izate bat bera, izate bat bakarra edo iruak izate bat uts-utsa dutenak dira. Iru lagun dira bai, baño eztute izate bat besterik iru lagunok, beren izate ori da Jaungoikotasuna. Iruak dira Jaungoiko, baño Jaungoiko ber-bera, ez iru Jaungoiko. Argatik dio Kristau ikastiak.

G. Aita Jaungoiko al da?—E. Bai, jauna, Aita Jaungoiko da.—Semea Jaungoiko al da?—Bai, jauna, Semea Jaungoiko da.—Espiritu Santua Jaungoiko al da?—Bai, jauna, Espiritu Santua Jaungoiko da.

Aita Jaungoiko da, beste bi lagunen iturburu. Au ezta iñorengandik sortu ta beragandik sortu da Semea. Semea aitagandik sortua da ba, ta Aita bezala Jaungoiko.

Ta Aita ta Semeagandik eldu da Espiritu Santua, oiek bezela Jaungoiko. Semeagandik ezta iñor sortzen, bai eldu baño ez Semeagandik baka-rrrik, baizik Aita ta Semeagandik Espiritu Santua; Eta Espiritu Santua gandik ezta iñor ez sortzen, ezta ere eldu.

Aitak Semea sortzean, eman dio Semeari bere izatea, bere auditasuna, bera dan guzia, Aita izatea ez beste guzia. Beronelaxe Aita Semeak berengandik Espiritu Santua ateratzean, eman diote beren izate guztia, beren ondasun guziekin.

G. Iru Jaungoiko al dira?—Ez jauna ezta Jaungoiko egiazko bat baizikan.

Gauz bakoitzaren izatea, beste gauza guztietatik bereizten duan artan dago. Gizona beste izaeradun guztietatik bereizten da go:putz ta anima ezaguera dunazkoa dalako; orra bere izatea. Jaungoikoaren izatea, *berez izatean* eta ondasun guztizkoa izatean dago. Orra ba zergatik Jaungoiko iru lagunak diran Jaungoiko. Iruak dira berez; eztira iñork egiñak ta iruak dira ondasun guztizkoak; iruak dute izate bat ber-bera, berdiña Aitagan Semeagan eta Espiritu Santuagan eta izate osoa Aitagan, Semeagan eta Espirituagan. Orra nola Jaungoiko iru lagunak eztiran iru Jaungoiko. *Izatekidetasun* (Consustancialitas) bera dute iruak eta Aita Semea ta Espiritu Santua *izatekide* dira, izate ber-bera Jaungoikotasun ber-bera dutelako iruak.

—*¿Iruak ez al dira iru izen dituan bat bera?—Ez jauna, ez; ez dira bat beraren izenak, baizik izen bakoitza da lagun bat osoa; ez bestetatik berezia, izate bera dutelako; bat da Aita, beste bat da Semea ta beste bat da Espiritu Santua. Ala dio kristau ikastiak.*

G. Aita Semea al da?—Ez, jauna, Aita ezta Semea.—G. Espiritu Santua Aita, edo Semea al da?—Ez, jauna, Espiritu Santua ezta Aita edo Semea.—Zergatik ba?—Iru lagun banakoak diralako naiz Jaungoiko egiazko bat izan.

Ezin dezakegu adirazi egi aundi au nola dan, baño onen irudiko gauzaz

esan dezakegu beintzat ezin ditekian gauza ez dala. Ara iru-orribelarra; belar bat bera izanik, iru orri berdin berdiñak ditu; lasto bat beragandik sortzen dira iru orriak, ezetasun berak ematen diote iruei bizia; ez al ditekian or ikusi Irutasun guziz deunaren itzaltxo bat? Ara eguzkia; beragandik sortzen



dira argia ta beroa ta iru gauz auek eztira gauz ber-bera; iruak inola eguzkiaren izatetik eztitezke berexi baño. Eguzkia ari da argia ixuriz ta eguzkiak eta bere argiak sortzen dute beioa; ez al da au ere Irutasunaren beste itxuratio bat.

X-garren Pio'ren kristau ikastak beste galde bat ba-dakar Irutasun deunaz: *G. Trinitate edo Irutasun guziz deunako lagunak berdiñak al dira? E. Irutasun guziz santuko lagunak oso berdiñak dira, guztiak jainkozko izate bat bera dutelako.* Iruak dute izate bera, asierarik gabe edo betitik, eta onengatik dira zartasunean berdiñak; iruak dira ontasun guztietan berdiñak ezin undiagooa guztietan, iruak ciralako. Jaungoiko Aitakeztu Semeak baño jakinduri, altasun edo indar geiago; ezta ere Espiritu Santuak, Aitak edo Semeak baño gutxiago ta onelaxe da beste beren ontasun guztietan ere.

G. Jaungoikoak bai al du gorputzarik guk bezala?—

E. Ez, jauna, Jaungoikoak

eztu gorputzarik, berez gogo edo espiritu uts-utsa dalako. Irutasun deuna edo Trinitate santua ikusi izango dezu itxura askotan; baño ez uste izan Irutasun edo Trinitate Santuak alako itxurarik berez ba-duanik; eztu berez gurputzik ezta ere itxurarik geroztikan. Baña ematen zaio itxura, orren bidez gure Jaungoiko aundi arrigarriaz oroi gaitezen eta agur egin dezaiozun. Bere otoitzik ederrena da Gurutzea egitean esaten dan «Aitaren eta».. gero berriz, *Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto*, Aintza edo gorantza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari.

Intza'r Damaso. A. O. M. Cap.



OGI ONETSIA (BEDEINKATUA)



USKAL erriko Elizetan badegu oitura zar bat, toki askotan galtzen ari dana: ogi onetsi edo bedeinkatua Meza-nagusietan banatzea. Gai ontaz itz banaka batzuek, gure irakurle begikoak zeratenoi, nai nizkitzueke esan.

Oitura on ori galtzen ari da, inor gutxik dakitelako zertako dan eta zer adierazi edo zeren irudia dan. Ez uste izan oitura on ori baikun batek edo ekarria dala; Doibatzak (Eliz Ama Santa'k) berak jarria da.

Lenengo Pio'k, 158^{gn}. urtean Aita Santu zanak, agindu zuan; Kristauak Elizan eskeñitako ogietatik, Jesus'en Gorputz egiteko bear dana artu ta gañerakoa bear bezela ebakirik, ontzi garbi ta egokiren batean edukitzeko; eta Mez-ondoan, jai-igandero, Jauna artuko etzutenak oneski (1) edo ogi bedeinkatu aietatik artzeko.

Armeni'tarren liturji edo eleiz otoitzak azaltzen dunez, ogi onetsi, bedeinkatu oiek Kristo'ren maiatik, ebanjelioko emakume kanaan'darrak nai zitan ogi papurren irudi dira.

Aita Santuak aspaldi auetan, biali, igorri oi zizkien ogi onetsi oietatik urrutienetako Gotzai edo Obispoai ere, eta Gotzaiak bata bestei eta beren mendeko apaizai; eta kristau utsak ere, naiz gizon naiz emakumeak alkarri banatzen omen zioten. Zertarako ote ziran ogi oiek? Batez ere irutako:

a) Jaunartzearen ordekozat.

g) Doibatzarekiko (Eliz Ama Santarenganako) batasuna adierazteko.

k) Alkar maitatzearen agerkaitzat.

Esandakoaz igorri dezakezute oitura onen ederra. Alde guzietan, batez ere erri txikietako elizetan, zabaldu bear litzeke beraz: oitura on ortan oraino dirauzuten erriak beintzat, jarrai berortan, alegindu, leiatu berori zaintzen.

Ogi onetsi ori bear bezela erabilli ezker on aundikoa izango zaizute.

Zere erriko Meza-nagusian banatuko dizuetenean, artu begirune aundiaz, gogoratuaz Jesus'en Gorputz irudia dala, eta ogi beretik denok jaten dezutenez, kidekoak bezela alkar maitetasunean bizi bear zeratela eta denak biotz batekoak izan. Ogia aora eraman baño len, zuen utsen edo pekatuen damutasuna ar-zazute, kristau ikastiak, dotriñak esaten dizuen bezela, oben barkamena irixteko. Apaizak Jauna artzen dun bitartean, zuek ere artu, oitura danez, ogiak "Aitaren" egiñaz eta otoitz au edo onen antzeko besten bat, aldarean dagon Jesus maiteari esaten diozutela: Jauna, pozik artuko ziñuzket nere biotzean, baño ezin dedan ezker zure maietik eroritako ogi papur au artu dezadan beintzat. Atozkit, Jauna; eta zure eskerraz nere utsen barkamena eta zurekiko eta nere kidekoen ganako maitasunaren geitzea indazu. Alaxen.

Lizartza'tar And. A. O. M. Cap.

(1) Ogi bedeinkatua esateko, *oneski* itza ipiñi det, *onetsi*=*benedicere*. Cfr. Moroni. Dictionario historico Ecclesiastico, verbum *Eulogia*

EZKONTZEKO PRESTAERA

ANDREAREN AZIERA

18

NERE Jose txit maitea: Gerekoikeri aldi auetan itxura utsezko elizkoitasuna, ta gezurrezko, Jaungoiko gabeko eta azal utseko aziera asko da; orretxegatik, zuk diozun bezela zure animak autatzen duanak izango duan aziera ta elizkoitasunari ainbeste ekin diot. Itxuraz eta izenez kristau izan eta ala deitzen diran aziera zenbait, zein azal-uts eta zembateraño diran Jaungoikogabeak nere begiz ezpanu ikusi, ez nuke siñistuko.

Nekeak eramateko, gure buruari indar egifiaz on-onak izan eta gero Zerua irixteko etorri gerala Jesukristok erakutsi digu.

Lurra negarrezko tokia dala eta nai ta ez, neke miñ atsekabe ta eriotzaren mendean dagon erbestetu bat dala gizona Jesus berak erakutsi digu. Berak erakutsi digu bizitz au ez dala bazkari luze-luze bat, baizik neke-miñen bitartez Zerua irabazteko ematen zaigun burruka eta saio-aldia.

Azkenekoz; bizi au nekeak eramateko eta gerokoa atsegiñetan egoteko dala erakusten digu; au, besie bizitza irabazteko eta bestea, gure lanbide eta egintza onen bitartez irabazi degunaz gozatzeko, poztutzeko.

Egi auek izan bear dute egiazko azieraren oin eta zimendua ta, onela egin bearrean, katolikoak izatea gauz aunditatzat daukaten ama askok, gezurrezko oña ipintzen dute ta alabai adierazten diote, lurrera etorri dirala poztutzeko, besteak baño geiago izateko, jostatzeko, dir-dir eizteko, nekeari iges egiteko, gogoak ematen diena egiteko, aiei atsegiñ ematearren, guziak nekeak eramateko eta berak inorenegatik nekerik ez eramateko etorri dirala. Ez alda au neska askok beren etxetan egitez ikasten dutena? Ez al da au Jaungoikogabeak egitea, eta berekoikeri ezin aundiagoa azitzen erakustea?

Eta aur oiek, monjen eskoletan ikasten egoteko zoriona izaten badute, gizonaren lurreko bizitzaz daukaten uste txar ori agian zuzenduko zaie; baño juaten ezpadira edo etxeratu ondoan, Jainko gabeko azieraren mamia dan berekoikeriaren irakaste ori arkitzen ba'dute, nola izango dira kristauki aziak; lurrera poztu eta jolasteko etorri dirala erakusten ba'diote nola ez dira berekoiak izango? Aginduak egiten, ta esanakoak izaten ez badiote egundaño erakutsi, nola ez dira izango minberakor eta matxiñoak? Besteen onagatik naikeri bat nai ta uzten ez ba'diote erakutsi, nola ez da aldartetsua izango? Naigabeak aserretu gabe eramaten ezpadie erakutsi, ¿no!a izango dira, maitagarri, on, gozo eta paketsuak?

Onelako gazteak gero ama onak eta emazte onak nola izango dira, bere buruari indar egiten, grifak ezitzen, Jaungoikoarengatik nekeak eramaten, edozein lan bear bada ere, bere eginkizuna betetzen ez padakite? ¡A! Zorritxarraz andrearen aziera kristaua, iduri baño askoz urriagoa, eskasagoa da. Ta au ola gertatzen da, bai emazte ta ama onak izateko guraso kristauak eman bear dioten erakastea semeai ematen dioten jakindurien erakustea ba-

ñ o askoz luzeagoa, zallagoa, eta bearragoa dala gurasoai buruan sartu e tzaielako.

Ama onen aziera, ama egiazki kristauak egitea ain premi aundi eta ain ondoren aundikoa dalako. ontan oldozten (pentsatzen) dedan aldi bakoitzean arritzen naiz, nola Elizan ez dan sortu alkartasunen bat ama onak izateko bear dutena ezkongaiak erakusteko ta bere etxean egin bear duten eginkizun aundian laguntzeko bakarrik. Premi guzientzat badauka Eliza ezin emankorragoak bere sendagarria, aiek estaltzeko praile ta monjen alkartasunak Elizaren barruan jaio dira. Egun negargarri auetan ama kristauen bearra aiñ aundia dalako, oraingoak ez padute ere kontun gaur artzen ama katolikoak egin-azi ta bere eginkizunak ondo betetzen laguntzea, uste det ontarako balderna edo kongregazio berriren bat Jaungoiko errukitsuak jasoko duela. Bear bezelako ama onak izatea, gizartea berritzea, bere ezbearren mendean dauden gizon eta emakumeak ondutzea izango litzeke.

Anbrosio Anaia

GOIENETXEKO LORETEGIAN

AMETS-arriarriya *Goienetxeko Ana Joxepak* gau batian izan zuana. Asko ta asko maite zuan bere etxeko loretegian andre gazte eder-zoragarri bat zebillen ¿Nongoa ote zan?.. Etzuan ezagutzen baña nor nai izan ta ere ezagun zan loretegirako esku-egokia zuala.

Ana Joxepak ametsetan leiotik ikusten zuan eta andik alde egiñaziko zion noski, andre gazteak begiratze gozatsu leunarekin agur egin izan ezpalio.

Gero lorategi arren jabe balitz bezela lorez-lore joan zan lorezai artz-tza, bakoitzari saskitxo batian zekarren ongarritik eskukada bat zañetara emanaz.

Lili txuri batenganontz bertaratu zanean irri-par biguñia ezpañetara etorri zitzaion eta ostu bikañetan liliari musu laztana eman eta onela mintzatu zan.

«Beti orrelaxen ikusi nai zaitut, lilitxoak; gero eta ederragoa, gero ta lirain, garbi, zoragarriagoa»

«Leiotik begira dagon zure jabeak daukan alaba *Mari'ren* biotza da zu bezin eder garbi polita neretzat; arretxen ispillua dirudizu lilitxo maite-maitea...»

Lorezai andre gazte arrotzak esan zitun itz abek *Ana Joxeparen* loa ase zuten eta bere loari bukaera eman ere bai.

Juana Marik bere gelan zeukan Ama Birjiñaren Irudi politaren antza berbera zuan *Ana Joxepak* ametsetan ikusi zuan lorezaiak.. Zeruko Ama ote zan ura?... Arren itzak entzun ote ditut?... zion bere baitan *Goienetxeko* etxeko andreak, esnatu zanean.

Juana Mari j atoz maitea !.. oju egin zuan gelatik eta an agertzen da, or datorkio 15 urteko alaba zarrena lili txuria eskutan dakarrela.—Orren goiz jeikirik zabilta, maitea?...—Aspaldi jaiki nitzan, ama. Meza entzun, Jauna artu, etxera etorri ta sua piztu ta loretegiko lore guztiei bustialdi gozo-gozo eman diet amatxo.

—Ta lili txuri ori zertako ondatu dezu alabatxoa?—Ez, ama, eztet ondatu, ezta ondatu ere nai; biar Ama Birjiñaren jaia dala eztakizu ba?—Egia diozu, *Juana Mari*; gorde, gorde ondo lilia, lorontzian jarri zazu, gero eliz maira (aldarera)-eramateko eta orain egin etxeko lanak txukun ta garbi. —Bai, ama, nere kontu eta... beti bezela, txintxo-txintxo eguneroko lanetan asi zan, neskata yayo-ona.

Amak alabari begira bere baitan ala zion: «Alabatxo au? nola maitatu ez?

Eskuetan daramazun lilitxoa bezin txuria daukazu, bai, oraindik biotza, nere maite orrek».

Egiz, *Goienetxeko* loretegian ziran lore guziak baiñan ederragoa zan *Juana Mariren* biotza. Badakizue zergatik?...

Maria bezela, Maria'rekin eta Mariarentzat bizi zalako.

Bere senideai askotan esaten zien:

On onak izateko ta bekatuetan ez erortzeko zeruko gure Ama maiteak bezela gauza guziak egin ditzagun; Berak ainbeste eztegu beñere Jaungoikoa maitatuko ta. Gure gurasoak ere orainik eztitugu berak maite zitun bezela maitatzen, eztare oien esanak egin.—Mikela juste al dezu zu bezela arpegi illun Ama Birjiña jartzen zala etxeko lanak egin nai ezik? Etzan zu bezela dantzara joaten, ez apika; obe zenuke zuk ere arpegi alai egon eta ez zapuzkeriz lertzen burua iduki, gurasoak dantzarako eskubiderik ematen eztizutenean.

*Juana Mari*k, bere senideak aserre ikusten zituanean pakea jartzeko esaten zien: Begira gure Ama Maria da eta berarekin gauza guziak egin bear ditugu.

Asarretu orde z bera izan dedilla zuen lagunik onena; esan zagon Errosarioa, ta ordun ikusiko dezute nola izango eztan orrela istillu gorriarik zuen artian.

Juana Mari beintzat eguneko lanak bukatu ala, bere gelatxora joaten zan eta an maite zuan Irudiaren aurrean auzpezturik otoitz au esaten zuan:

«Ama errukitsua; gaur egin ditudan lanak eta egite onak zure eskuetan ipintzen ditut. Zure irabaziekin apaindu eta zureak balira bezela Jaunari eskeñi. Badakit bekatari gaxo bat naizela, bañan Zu errukitu zaitez nitzaz, zure alabatxoa naiz ta»

Iruditzen zait Jesus maitiak, Mariaren alabatxo onen otoitza entzutean esango zuala.

«Beti orrelaxen ikusi nai zaitut, lilitxoa; gero ta ederragoa, gero ta lirain, garbi, zoragarriagoa»

OYARTZUNA. O. M. CAP.

Bear diran Eliz-baimenarekin.

* ZERUKO ARGIA 2,50	* Erb esterako utsik 3,50*
Itzaldiakin 3,50	Itzaldiakin 4,50

Iruña'n, Kaputxinoen Neketako Ama-Birjiña'ren Irarkolan.